

po, la buena situación que aún le restaba de tiempos mejores, y ha sufrido, como los demás propietarios, los efectos ruinosos de sus intereses: mas dejemos estas tristezas, y vamos, pasando por el santuario de Pedrajas, en el que rezaremos una *Salve* á la Virgen María para continuar diciendo algo del monasterio de San Salvador de Oña.

MIGUEL MARTINEZ BALLESTEROS.

*(Se continuará)*

---

## DONOSTIAKO GAZTEAK

### LANGILLE MAISUEN PESTA 1832-GARREN URTEKO

ZANPANZART EGUERDIAN

---

#### Marcha

Orañ urte bi etorriñan  
Zalduniote goizean  
Donostiara, andre ta gizon  
Kantari eta lanean:  
Aurten berriro gatoz plazara  
Zanpanzart bazkal aurrean  
Kanta soñu eta danzakiñ  
Pozez umore onean.

Gurekin dator aita Joñepe  
Agure gordiñ maitea  
Maisu aditu aspaldikoa  
Langille pare gabea:  
Ona Joñepe gizon zintzoa  
Nagusi prestu gurea,  
Nekean pizkor, jolasean zar  
Eta festetan gaztea.

#### Belaun-chingoa

Zortzi langille maisu guztiak gazteak  
Eta emazteak,  
Arintzen nekeak,  
Gatoz plaza berrira, umore onean,

Dantzari lanean,  
 Kantari nekean:  
 Soñubarekin gera alegre dantzatzen  
 Ez gera nekatzen,  
 Ez ere aspertzen,  
 Salto bada gizonak, ta andreak salta  
 Egiñ lana, kanta  
 Ta nekean dantza.

### Iru damacho

Donostiako festara gatoz  
 Berri onakiñ kantari  
 Emen lendanaz jakin dirala  
 Plazan ondo da ageri:  
 Infanta maitea, jayocho berria  
 Salbe ta ongi etorri.

Infantachoa zeren dan jajo  
 Donostiako jendea  
 Festan egunaz, gabean festan  
 Dago naigeaz betea:  
 Atsegin, zorion biotz leyaleko  
 Pozaren eziñ gordea.

### Zortzikoa

Zortzi ofiziotan  
 Degu gure lana  
 Atozte lenbiziko  
 Dendariagana:  
 Eramango dezute  
 Beti gauza ona,  
 Burutik oñetara  
 Jazteko persona.

Zapatariakditu  
 Biziro sendoak  
 Bota ederrak merke  
 Eta modakoak:  
 Zapata polit, larru,  
 Oyal sedazkoak,  
 Ondo errebitatu  
 Eta neurrikoak.

Arotzak ugarita  
 Merke dauzka gayak  
 Egiteko apalak  
 Kuchak eta oyak:  
 Iskindogiak, mairak  
 Ate, leyo, mayak,  
 Alki, armarioak  
 Eta arilkayak.

Kupelgilleak ditu  
 Zubek serbitzeko,  
 Tonel, barrika, barrill  
 Sulla ta tinako:  
 Onzi burniz josiak  
 Bañubak artzeko  
 Uztai eta zumeak  
 Lana egiteko.

Ichas gizayak dauzka  
 Parol eskukoak,  
 Inbutu, kafé onzi,  
 Olio charroak:  
 Kandelero, neurriak,  
 Platerak, potoak  
 Alanbre, sare eta  
 Enzuluzechoak.

Perratzalleak bere  
 Ilze ta perretan  
 Egitekoa urri  
 Dauka plaza ontan:  
 Banan beti ugari  
 Ordu guztietan  
 Mandazai, idizai ta  
 Ostalarietan.

Pazigilleak berak  
 Nai duben adiña  
 Zarrak adobakitzen  
 Badu zer egiña:  
 Chokolaterachoa,  
 Pertza, zartagiña,  
 Pazi, tupi, kaldera  
 Eta kalderiña.

Chorrochgíliea bere  
 Arri leunean,  
 Bururik jaso bage  
 Ari da lanean:  
 Eguna argitzetik  
 Illundu artean  
 Guraize labanakin  
 Kale kantoyean.

Adio Donostia,  
 Asko da jendeak,  
 Despeditzen zaituzte  
 Orain langilleak;  
 Esker onez beterik  
 Gizon ta andreak  
 Oroituko gerade  
 Joan arren urteak.

JOSÉ VICENTE DE ECHEGARAY.

